

### 3. JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ekainaren 30eko 6/1989 Foru arauaren Testu Bategina onetsi zuen martxoaren 17ko 2/92 Foru Arauan ezarritakoa betez, honakoa onetsi da:

#### 1. artikulua. Haztapeneko koefizientea eta jarduera-koefizientea

1. Zergaren tarifetan finkatuta dauden gutxieneko udal kuotak gehitzeko, subjektu pasiboan eragiketen zenbatekoak zehaztutako haztapen koefizientea aplikatuko da.

Nolanahi ere, zergaren tarifetan finkatuta dauden kuota probintzialen eta estatalen gainean haztapen koefizientea aplikatuko da.

Aurreko paragrafoek aipatzen duten haztapen koefizientea kalkulatzeko, honako taula hau erabiliko da:

ERAGIKETEN ZENBATEKOA (€)	KOEFIZIENTEA
2.000.000,00 eta 6.000.000,00 bitartekoa .....	1,20
6.000.000,01 eta 10.000.000,00 bitartekoa .....	1,22
10.000.000,01 eta 50.000.000,00 bitartekoa .....	1,24
50.000.000,01 eta 100.000.000,00 bitartekoa .....	1,27
100.000.000,00tik gorakoa .....	1,30
Eragiketen zenbatekorik ez .....	1,25

Atal honetan aipatutako koefizientea aplikatzeko, subjektu pasiboaren eragiketen bolumena berak egindako ekonomi jarduera guztiena izango da, martxoaren 17ko 2/92 zenbakiko Foru Dekretuaren 5. artikuluko 1. ataleko h) letran ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

2. Aurretiko atalean araututako koefizientea aplikatzeagatik ezarritako kuota gehituak 1,60ko koefiziente zuzentzailea aplikatuz gehituko dira udal barrutian ditugun jarduera guztietarako.

#### 2. artikulua. Egoeraren koefizientea

Aurreko artikuluan araututako jardueraren koefizientea aplikatuzetik gehitutako kuotei, udal mugartean garatzen den jarduera kokaturik dagoen establezimenduaren egoera fisikoa haztatzeko gehiketa bat erantsiko zaie, eta hori horren gaineko Ordenantza Fiskaleko arauak kaleari ezarritako kategoria fiskala kontuan hartuz egingo da honako indizeen eskala baliatuz:

Bide publikoaren kategoria fiskala.....	1	2	3
Índize ezarkorra.....	1,2	1,1	1,0

#### 2 bis artikulua. Hobariak

1. Subjektu pasiboek dagokion kuotaren hobaria eskatu ahal izango dute udal-kuota ordaintzen dutenean eta aldi bereko ekoizpen sistemetatik ekoizten dutenean energia.

Horretarako, urtero aldi bereko energiaren ekoizlearen ziurtagiri ofiziala aurkeztuko dute.

Hobariaren zenbatekoa izango da:

- 20 Mw-raino ekoiztuz gero: .....100eko 25koa.
- 20 Mw eta 50 Mw bitartean ekoiztuz gero, urtean:.....100eko 30koa.

2. Ingurumen kudeaketako sistemen ziurtagiriak dituzten subjektu pasiboek kuotaren 100eko 30eko hobaria eskatu ahal izango dute Euskal Herriko Ingurumenaren Babeserako otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak adierazten dituen jarduera sailkatuetan jarduten badute; beti ere, EMAS europar araudiak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

### **3. artikulua. Indarrean jartzea**

Ordenantza honek eragina izango du 2010eko urtarrilaren 1etik hasita, Toki Araubideko Oinarrien gaineko 7/85 Lege Araupetzaileak bere 107. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta indarrean jarraituko du aldaraztea edo indargabetzea erabaki arte.

### **Eranskina. Kaleen sailkapena jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ondorioetarako**

Kaleak, eta, oro har, udalerriko lekuak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

#### **A. LEHEN MAILAKO KALEAK: HIRI GUNEAK**

“PARAMO” INDUSTRIALDEA  
MAGDALENA  
EL MARQUES PLAZA  
MARTÍN MENDIA  
SAN SEVERINO PLAZA  
HEDEGILE KALEA  
KUBO  
FORU PLAZA  
PÍO BERMEJILLO  
DONE LAURENTI AUZOA  
GELTOKI KALEA  
JOSE ANTONIO AGIRRE ETA LEKUBE LEHENDAKARI PLAZA  
MARTIN MENDIA PASEALEKUA  
ALDAPA KALEA  
KALBARIO KALEA  
MOJAZELAIA  
KUBO KALEA  
ENKARTERRI ETORBIDEA  
FELIX DE LA TORRE KALEA  
EHULE KALEA  
GAZTELU KALEA

#### **B. BIGARREN MAILAKO KALEAK: SAKABANATUAK EDO BERDINDUAK**

ERREKA KALEA  
MAGDALENABARREN KALEA  
SANTO DOMINGO AUZOA  
DORRE KALEA  
NOCEDAL AUZOA  
SAN SEVERINO ZEHARKALEA  
GALTZADA KALEA  
KRISTO KALEA

PENILLA KALEA  
GRAZIAKO ANDRA MARIA

**C. HIRUGARREN MAILAKO KALEAK: LANDA GUNEA**

LA PIEDRA GAZTELUA  
VALBUENA ZEHARKALEA  
LARRUGIN  
ARBIZ ETA BARRIOS  
PRESA ENCIMERA  
PANDOZALES  
PEÑUECO